



Errobi **erreka**ren **adibidea**







Errobi erreka

GOGOAN ATXIK

Errobi erreka Nafarroa Beherean sortzen da, Mendebaldeko Pirinioetako mendietan. Aturri ibaiarekin elkartzen da Baionan. Handik hurbil, Angelu eta Bokaleren artean, Aturri Ozeano Atlantikoan itsasoratzen da.

Hego-ekialdetik ipar-mendebaldera isurtzen den izari ertaineko erreka da. Euskaraz Errobi du izena. Frantsesez *la Nive* erraten zaio. Izen hori euskara arkaikotik etor liteke (On-lbar -> Lo Niver -> Lo Niva -> La Nive. Iturria: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/98463>)

Dozena bat ibaiadar badu. Handienak hauek dira:

- Aldudeko erreka
- Arnegiko erreka (Luzaiden sortua)
- Beherobia (Ezterenzubin sortua)
- Lauribarra (Mendiben sortua)

Azken hirurak Donibane Garazin elkartzen direlarik, Errobi izena hartzen dute.

Salmonidoen arrantzariak eta ur biziko kirolariak Errobi preziatzen dute. Arrainen hazteko, elektrizitatearen ekoizteko eta edateko uraren hornitzeko ere baliatzen da. Beste erabilera batzuk ere badira, garrantzi gutiagokoak izanik ere, hala nola laborantzako ureztatzea, ohe ttipiko harrobiak eta termak.

AURKIBIDEA

✓ Gogoan atxik	3. or.
✓ Errobiren arroa	4. or.
✓ Errobiren ekosistema	6. or.
✓ Errobiren erabilerak	12. or.
✓ Errobi eta nabigazioa	17. or.
✓ Errobiko erreka hitzarmena	22. or.

ERROBIREN ARROA

Errobiren arroa Pirinio Atlantikoetako mendebaldean kokatzen da eta parte batean, [Nafarroan](#).
Frantziako Estatuko 48 herri hartzen ditu eta Hego Euskal Herriko 7 herri. Orotara 1 000 km²-ko eremua du nonbait han.

Urbegia eta ibai ahoa

Errobiren urbegi nagusia Ezterenzubiko Beherobia auzoan da, Errozate (1 440 m) mendiaren azpialdean.

Aturri ibaian isurtzen da Baionako Mayou zubiaren pean. Urbegi nagusitik Aturriraino guti gorabehera 79 km luze da.

Errobiren ibaiadar nagusiak

Elikadura-arroaren azalera	Azalera (km ² -tan)	Errekaren luzera (km-tan)
Aldudeko erreka	197,2	33,5
Arnegiko erreka	95,3	20,8
Beherobia	115	17
Lauribar	79,5	28,8
Arzubi	55,2	13,3 (iturria: Sandre)
Lakako erreka	72,4	20,4
Baztanerreka	53,2	12,9

Erreken jabetza


✓ **Eremu publikoko Errobi: Donibane Garazi baino beherago,**
Estatua da ohearen eta ibaiertzen jabe. Artatu behar ditu, urak ongi isurtzeko gisan; uraren hartzeko edo erabiltzeko behar diren baimenak ematen ditu.

✓ **Eremu pribatuko Errobi: Errobiren ibaiadar guziak**
Ertzen jabea ohearen erdiraino ere jabe da. Uraren erabiltzeko eskubidea (Estatuaren kontrolpean), arrantzatzeko eskubidea eta jabego pribatuari lotu eskubideak baditu.

Lurpeko ura


Lurpeko ur geruza freatikoei (ur alubialak edo barnatasun handiko urak) dituzte lurpeko ur gehienak biltzen. 2002an Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak geruza alubialaren ustiapenaren ikertzeko zilatzeak bideratu zituen Haltsuko aldean.





Aturri ibaiaren ibaiadarra da Errobi. Iturri nagusiak Aldudeko eta Garaziko mendietan dauzka eta Baionan, itsasoaren bokaletik hurbil, Aturrirekin bat egiten du.

Errobiren arroa zabala da hegoaldean eta gero eta hertsiago iparraldeari buruz. Arroaren azalera 1000 km²-koa da. Nazioarteko muga ez zaio alde guzietan Errobiren arro naturalaren diseinuari jarraiki.



ERROBIREN EKOSISTEMA

BARTETAKO FAUNA ETA FLORA

Hegaztiak

Europa mailako Hegaztiei Buruzko Zuzentarauak eta Bernako Hitzarmenak gerizatzen dituzten espezieak aurkitzen dira.

Askotan haien habitata desagertzeko arriskuan da. Besteak beste, hauek ikus daitezke : okil berdea, miru beltza, martin arrantzalea, istingor arrunta, papogorria, erregetxo bekainzuria, zozo arrunta, zapelatz arrunta, zingira-mirotza...

Ugaztunak

Basurdea, orkatza, azeria, ipurtatsa (pitotxa), azkonarra, bisoi europarra...

Herrestari eta anfibioak

Baso-igel jauzkaria, uhandre palmatua, horma-sugandila, apoarmatu istilzalea...

Intsektuak

Ttirritta, otia, pinpirinak...

Flora

Hezeguneetakoa biziki aberatsa da. Habitat mota desberdinak badira, hala nola: oihana, ibai bazterreko oihanak, hesiak... Zuhaitzak: haltz beltza, sahatsak...

Basaloreak

Lirio horia, astalarra, txipa-belarra...



ERROBIREN EKOSISTEMA

Errobiko bartak

Barta hitza lekuko izena da. Usu uholdeen menpe dauden errekaen ohe nagusiko lurrak hala deitzen dira.

Bartak eta uholdeak

Erreka arro euritsua izanik, Errobiren urak azkarki handitzen dira usu. Gainera, ibaiadar nagusiak malda handikoak dira.

Ondorioz, beheko lurrak edo bartak maiz urez gainezka dira. 1625eko uholde famatuak Baionako auzoetan Errobi zeharkatzen zuten bi zubiak eraman zituen.

Uholde garaietan edo marea handietan, soberakineko ura Ansoteko bartan biltzen da. Bartek ibaian beheko lurrak uholdeetarik gerizatzen dituzte, Baiona Ttipiko auzoa besteak beste. Beraz, Errobiren beheko ibarrean uholdeak jasaten dituzten lurrei esker, Baionako hiri eremuak gutiagotan urperatzen dira.

Ansoteko zelaia

Ansoteko zelaia Errobiko barten eremuan da. Errobiren eskuineko bazterrean da, Baionako lurretan (100 hektarea) eta Milafrangakoetan (200 hektarea), orotara 300 hektarea zabal.


Haietarik 100 hektareako eremu natural zaindua bada, Baionako hiri barnetik hurbil.

Han, eremu hezeen ekosistema bereziak ezagut daitezke gaika antolatu bidexketan barna: ekologia, fauna, flora, ura, bizia bartetan. Bartetako etxean, informazioa aurki daiteke, eta erakusketa iraunkorrak edo aldian aldikoak, bai guneari buruz (bidexkak, barten sistema), bai eta orokorki inguruneari buruz eta garapen jasangarriari buruz ere. Oinez edo bizikletaz ibil daitezke han, Baionako zirga bidetik Zubi Zuria iraganez. Inguruneari eta ondareari buruzko interresgune hau Eremu Natural Minbera gisa izendatua da (*Espace Naturel Sensible*). Publiko zabalari irekia zaio, bai eta ikasleei eta naturalistei ere. Bestalde, naturari buruzko heziketa jarduerak antolatzen dira.




ERROBIREN EKOSISTEMA


Errobiko barten ebakidura itxura



Errobiko barten ebakidura itxura: marea gora denean ur soberakinak atxikiak dira bartetan. Ataska hetsirik dago.



Errobiko barten ebakidura itxura: marea beheira denean, ur soberakinak bartetatik isurtzen dira Errobira. Ataska irekirik dago.



Ansoteko bartek betekizun estimagarria dute: Baionako karrikak uholdeetarik begiratzeko dituzte. Ura bartetan atxikiz, Errobi ibaiadarra ez da hain aise bere ohiko ohetik ateratzen.



ERROBIREN EKOSISTEMA

Xurruilatxeko eiherako urtegia

Xurruilatxeko aintzira pribatua Arrangoitze eta Basusarriren artean da, guti gorabehera 2 hektarea zabal da. Eihera Frantziako Iraultza baino lehenagokoa da. Ogi eta arto irinaren egiteko erabiltzen zen.

9 hektareatan, aintzira eta lotuak zaizkion inguruneak (oihanak, pentzeak, latsak), interes ekologiko berezikoak dira. Izan ere, fauna eta flora bereziak aterpetzen dituzte, horien artean gaur egun bakandu espezieak. Ondorioz, eremu osoa gerizatua da. Besteak beste, aipatzekoak dira:

- ✓ bisoi europarra, kontinenteko espezie mehatxatuenetarik bat,
- ✓ apoarmatu istilzalea (frantsesez *Cistude d'Europe*), Frantziako banaketa ezagunaren hego-mendebaldeko muga Xurruilatxen duena,
- ✓ hegazti espezie anitz, bereziki habiagileak eta negutarrak.

Ibar zolako ekosistema izanik, Barberako erreka azpi arroarekin harreman estuak ditu. Azken hau ingurune heze eta urekoa da eta ondorioz eragin anitzen menpe:

- ✓ laborantzatik, etxeetatik, edo aisialdiko jardueretatik heldu kutsadura arriskuak (beruna...),
- ✓ sedimentuen metaketa,
- ✓ inguruko paisaien moldaketa eta "artifizializazioaren" ondorioak.

Akitaniako Eremu Naturalen Herrialdeko Kontserbatorioaren (*Conservatoire régional d'espaces naturels d'Aquitaine*) eta jabearen arteko lankidetzari esker, guneari faunaren eta floraren babesteko zeregina eman zaio, eta helburu horrekin kudeatua da (eremu naturalen eta gunearen kudeatzeko azpiegituren artatzeko eta berritzeko ekintzak, faunaren, floraren eta ureko inguruneen jarraipena, etab.). Gunea ehiza erreserba da, fauna basaren erreserba, eta Eskualdeko Erreserba Natural (*Réserve naturelle régionale*) gisa sailkatua izateko eskaera egin da.

Arrain espezieak

Eskaintzen dituen habitat desberdinei esker, Errobik espezie kopuru handia gerizatzen du.

Migratzen ez duten espezieak

Txipa (*Alburnus alburnus*)
Barboa (*Barbus barbus*)
Perka amerikarra (*Micropterus salmoides*)
Brema (*Abramis brama*)
Lutxoa (*Esox lucius*)
Zamoa edo karpa (*Cyprinus carpio*)
Iparraldeko katxoa (*Leuciscus cephalus*)
Platuxa latza (*Platichthys flesus*)
Ganbusia (*Gambusia affinis*)
Errutiloa (*Rutilus rutilus*)
Xarboa (*Gobio gobio*)
Loina (*Chondrostoma nasus*)
Korrokoia edo lazunak (*chelon sp.* edo *Mugil sp.*)
edo *Liza sp.*)
Eguzki arraina (*Lepomis gibbosus*)
Perka arrunta (*Perca fluviatilis*)
Katu beltz arraina (*Ameiurus melas*)
Eskardinio begigorria (*Scardinius erythrophthalmus*)
Tenka (*Tinca tinca*)
Ibai-amuarra (*Salmo trutta fario*)
Ezkailua (*Phoxinus phoxinus*)
Katxoa (*Leuciscus leuciscus*)

Espezie migratzaileak

Astuna (*Alosa fallax*)
Aingira (*Anguilla anguilla*)
Kolaka (*Alosa alosa*)
Ibai lanproia (*Lampetra fluviatilis*)
Itsas lanproia (*Petromyzon marinus*)
Izokina (*Salmo salar*)
Itsas amuarra (*Salmo trutta trutta*)



Errobi erdigunea


- ♦ Bidarraitik Kanbora
- ♦ malda eta barnatasun ertaina
- ♦ oxigenazio egokia duen ura
- ♦ zola harritzatua
- ♦ ezpondak landare anitzez estaliak

Mendi aldea

- ♦ Ezterenzubitik eta Urepeletik Bidarraira
- ♦ ur joaira
- ♦ barnatasun ttipiko erreka
- ♦ ur hotza, oxigenazio egokia
- ♦ zola harritzatua

Errobi behealde

- ♦ Uztaritzetik Baionara
- ♦ maldarik ez, eta itzuli-mitzuliak
- ♦ barnatasuna duen erreka
- ♦ ur "beroa" oxigenazio eskasarekin
- ♦ ureko landaredia
- ♦ marearen eragina
- ♦ bartak Baionara heltzean



ERROBIREN EKOSISTEMA

Errobiko espezie ezagunak

Errobiren aberastasunetarik bat espezie anitzen ugalketa lekuak eskaintzea ere da:

- ✓ izokina eta amuarraina erreken goialdean,
- ✓ lanproia Kanbo eta Uztaritzeren artean,
- ✓ lutxoia bartetako hezeguneetan, erreken behealdean.

Haatik, azken hamabost urteetan amuarrainen kopurua ttipitzen ari da, bai eta ibaiadar batzuetara ugaltzera heldu diren izokinena ere.

Errobin hogeita hamar bat arrain espezie bada:

- ✓ Aldudeko errekan, Arnegikoan, Beherobian, Lauribarrean eta Baztanerrekan ibai-amuarraina (*Salmo trutta fario*), burtaina (*Cottus gobio*), ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), mazkarra (*Nemacheilus barbatulus*), xarboa (*Gobio gobio*) eta espezie migratzaile zenbait, hala nola izokina (*Salmo salar*) eta aingira (*Anguilla anguilla*).
- ✓ Donibane Garazi baino beheagoko Errobin, Lakako errekan, Luhusoko errekan eta Laxian lehenago aipatu arrain espezieak bizi dira, bai eta ziprinidoen familiako bi espezie: barboa (*Barbus barbus*) eta iparraldeko katxoa (*Squalius cephalus*).
- ✓ Behealdeko Errobi bigarren kategorian sailkatua da Haltsuko presatik beheiti. 28 espezie aterpetzen ditu.

Migratzaileak aterpetzen dituen ibaia

2001az geroztik, migratzaileak ibaiko 107 km-tan ibil daitezke (70 km-tan 1980an eta 95 km-tan 1999an).

Ibai arroan, 56 presa balizko oztopo gisa zerrendatuak dira.

- ✓ Presa horietarik % 55 nekez edo ezin iraganak dira,
- ✓ % 30 egokitasun ertainekoak dira (igaitean edo jaustean),
- ✓ % 9 egokiak dira.

Gaur egun, Errobiren arroko erreka sailkatuetan gelditzen den egokitu gabeko eraikuntza bakarra Lauribarreko Erromategi presa da. Hala izanik ere, migratzaileentzat ez da puntu beltz gisa ikusia, haren azpian ez baita sekula izokinen metaketarik agertu eta arraba-lekuak aurkitu baitira ibaian gora. Eraikin honen sailkapenaren apaltzeko erabakia ikertzen ari dira. 2001ean Zadouroff presan pasabidea egin zuten arraintentzat, honela Beherobian barna migratzaileei 12 km gehiago irekiz.

2006an Intxauspe presaren kentzearekin, Errobik bere jatorrizko ezaugarriei hobeki dagokien jariora berreskuratu zuen (uholde joera duen jariora). Orain arrainak berriz ere libreki ibil daitezke eta florak eta faunak baldintza eta habitat hobeak berreskuratu dituzte.



ERROBIREN ERABILERAK

Araztea

Arazte kolektiboa: Errobiren arroko gero eta herri gehiagok arazte sistema kolektiboa ezartzen dute.

2008an 31 herri arazte sareei loturik zitzaizkien (2001ean, Errobiko Erreka Hitzarmenaren sinatzean 16 ziren)

Errobiren arroan molde anitzeko ur arazte guneak badira, horien artean:

- ✓ lohi aktibatuarekilako guneak
- ✓ bakterio ohearekilako guneak
- ✓ harea iragazkiak
- ✓ zohikatzarekilako iragazkiak
- ✓ *septodiffuseurs* izeneko sistemak.

Arazte ez kolektiboa: Errobiko arroko etxeak biziki barreiatuak dira. Etxeek errekek kutsa ditzakete. Arazte ez kolektiboaren ikerketa orokorraren arabera, arauak ez dira beti errespetatzen partikularren instalazioetan. Dauden arazte sistema ez kolektibo gehienak ez dira osoak (gehienetan aitzineko tratamendu bakarra egiten da ingurune naturalera isuri baino lehen).

Arazte eskemen gauzatzeko: herriek definitu behar dute, epe labur eta luzean, hondakin urak nola bildu eta nola tratatu, bai eta arazketaren ondoko hondarrak nola deuseztatu. Hortarako, *Arazte Eskema Nagusi* (*Schéma directeur d'assainissement*) izeneko ikerketa bereziak egiten dituzte. Errobiko arroko herri guziek arazte eskema nagusia egina dute.



ERROBIREN ERABILERA

Edateko uraren ekoizpena

Desafio hau zinez estrategikoa da Errobiko arroarentzat. Arro horretan, edateko ur hornidura 51 gune edo eremutarik ateratzen da, heldu baita orotara 137 iturri. Bilketa guneen % 90 iturriak dira, baina hauek egunero hartzen den bolumenaren % 34 baizik ez dute ematen.

Uztaritzen, arroaren behealdean, ura Errobiren azaletik hartzen da. Arroan egunero hartzen den bolumenaren % 62 handik ateratzen da; proportzio horrek argiki erakusten du arroko ur baliabideen ahulezia.

Azaleko ur hargune hau Errobiko Lantegiaren Sindikatu Mistoak (*Syndicat mixte de l'usine de la Nive*) kudeatzen du.

Handik ateratzen den urak Lapurdi kostaldearen eta Landes hegoaldearen parte handi bat hornitzen du. Urtero 12 milioi m³ ur hartzen dira nonbait han, Lapurdi kostaldeko, Landes hegoaldeko eta Errobi ibarreko hogeita hamar bat herritan banatzeko. Baliabide horrek udan guti gorabehera 400 000 pertsona hornitzen dituela kalkulatu da.

Diagnostiko garaian, Erreka Hitzarmenaren ikerketak uraren kalitate bakteriologiko txarra erakutsi zuen. Alabaina, arroko ekoizpen unitate garrantzitsuenaren kasuan (Errobiko lantegia, 12 milioi m³/urte) kalitatea edangarritasunaren normen muga da (20 000 koliforme fekal/100 ml). Muga gainditzen bada, administrazioak uraren ponpatzea debeka dezake.

Arrain haztegiak

17 arrain haztegi badira errekaaren arroan, gehienak Aldudeko errekan. Amuarrairain ortzadarra da gehienik hazten. Jarduera garrantzitsua da, alor ekonomikoan bereziki. Arroko ekoizpenak Ipar Euskal Herriko ekoizpenaren % 80 ematen du.



ERROBIREN ERABILERAK

Energia ekoizpena

Elektrizitatea: arroan 20 zentral (edo “mikrozentral”) badira. Honela banatzen dira:

- ✓ 3 EDF zentral
- ✓ herriko “mikrozentral” bat
- ✓ 16 “mikrozentral” pribatu

Eiherak: Errobin ur eiherak baziren Antzinatetik. Orokorki, X. mendetik goiti garatu ziren. Animalien indarraren orde z urarena erabiltzeari esker, eiherazainen jarduera azkarki garatu zen. Ur eihera anitz bazen Errobin eta haren adarretan. XX. mendean kasik desagertu ziren. Elektrizitatea ekoizten eta saltzen duten mikrozentral elektriko bilakatu dira horietarik zenbait.

Jarduera industrialak

Errobiren arro osoan, bost langile baino gehiagoko 90 enpresa badaitaizke, erran nahi baitu guti gorabehera 2200 langile, gehienak ofizialeak. Enpresa horietarik batzuk isurketak eragin ditzakete erreketan. Ur agentziak zerrendatu ditu. Hartu uraren gaineko zerga eta kutsaduraren gaineko zerga ezartzen zaizkie. Larru lantegiek anitz kutsa dezakete. Horietarik bat Ezpeletan dago. Larru lantegi horrek garbiki ekoizteko egokitzen jakin du.

Harri, legar eta harea ibai ohe nagusitik ateratzen segitzen dute oraino gunee batean, Uztaritzen. Urtean gehienik 100000 tonaren ateratzeko baimena badute 2012 arte. Akitaniako alubioi ekoizpenaren % 1 baino gutiago ateratzen da handik.



ERROBIREN ERABILERA

Laborantza

Errobiren arroaren azaleraren % 43 Laborantzako Azalera Erabilgarri (Surface Agricole Utile) gisa sailkatua da. Eremu zabalak belarrez estaliak dira eta abelazkuntza da nagusi.

Laborantzatik ateratzen diren kutsatzaile ezagunenak nitratoak, fosforoa, pestizidak eta bakterioak dira. Bestalde, Errobi arroko Laborantzako Azalera Erabilgarriaren % 1 baino gutiago ureztatua da. Iduriz, ureztapenaren praktika ez da hedatuko.

Uholde-oherearen eta ibaiertzen okupazioa:

Errobi erreka eta haren ibaiadar nagusiek 390 kilometro ibaiertz badituzte. Horiek horrela estaliak dira:

- ✓ pentzeak: % 42
- ✓ alorrak: % 4
- ✓ hirigintza: % 22
- ✓ oihanak: % 27
- ✓ lugorriak: % 5

Ibaiertz horiek aski naturalak dira nagusiki (belar eta oihanak).

Aisialdiak

Ur bizietako kirolak: 2002an, Pirinio Atlantikoetako departamenduan, 140 000 lagun ari izan ziren kirol hauetan. Kopuru horrek Frantziako merkatuaren % 4,27 biltzen du, heldu baita lau aldiz Frantziako departamenduen banaz bestekoa. Pirinio Atlantikoetako departamendua 3. postuan dago, Alpe Garaiekin batera eta Dordoina eta Ardèche departamenduen ondotik. Eskaintza horretan, Donibane Garazi eta Kanboren arteko hogeit hamar kilometroko zatian gertatzen da departamenduko jardunen kasik erdia. Aktibitate gehienak lekuko bost elkarteren eta kanpoko beste hiruren bitartez egiten dira. Erabilpen hau garrantzitsua da ekonomia sailean. Errobiren arroko turismoaren garapenean parte hartzen du.

Arraunketak: aspaldiko praktika da Errobin, 1904an hasia. Baiona eta Uztaritzaren artean iragaten da.

Arrantza: Errobiko hidrografia sare bi kategoriatan sailkatua da:

- ✓ Lehen kategorian, Haltsuko presatik goiti, salmonidoak nagusi diren eremuan.
- ✓ Bigarren kategorian, urtegi horretarik beheiti Xapitaliaraino (Milafrangan, ur gaziaren mugan), arrain gehienak ziprinidoak diren eremuan.

Errobin arrantza molde desberdinak badira. Kanaberaz egiten den arrantza ez profesionala biziki garatua da. Izokinak, amuarrainak, aingirak eta lutxoak dira gehienik arrantzatzen. Aktibitatea Errobiren ezaugarrien menpe da: arrain populazioen kalitatea, uren kalitatea, arrain migratzaileei irekia izatea, arrantza lekuen lasaitasuna...



ERROBIREN ERABILERAK

Ondare kulturala

Errobiko ibarrak ondare kultural oso aberatsa dauka, eraikuntzen eta paisaien kalitatean bermatua. Gune batzuk babestuak dira, hala nola:

- errekarari loturiko zortzi gune izendatuak, horien artean Aldudeko, Donibane Garaziko, Baigorriko, Arnegiko herriak eta Errobiko ibaiertzak Donibane Garazin;
- gune sailkatu bat: Laugako ibilbideak, Errobiren eskuineko ibaiertzean.

Termak

Kanboko ur termalen bertuteak XII. mendetik ezagunak dira. Ur on horietan jende famatua ere ibiltzen zen: Marie-Anne Neubourgekoa, Karlos II.a Espainiakoaren alarguntsa, Kanbora jiten zen XVIII. mendearen hastapenean.

Gaur egun, erreumatologian (artrosiak, lokomozio aparatuaren arazoak) eta arnasbideen tratamenduan (ORL eta pneumologia) berezitu bainuetxea bada.



ERROBI ETA NABIGAZIOA

Merkataritzako bideak

Errobiko merkataritza trafikoa dokumentu historiko anitzetan aipatzen da. Gutierrez zortzi mendez, XII. mendetik XIX.era, salgaiak bide hau segitu zuten Baiona eta Kanboren artean zeuden portuetatik iraganez.

Baiona eta Iruñearen arteko harremanak oso zaharrak dira. Errobi erabiliz egiten ziren, hein batean bederen.

Garraiatzen ziren salgaiak

Baionatik Iruñera eta Nafarroara igortzen ziren salgaiak gehienbat ehunkiak ziren (oihalak, arropak eta mihiseak), janaria (azukrea, kakaoa, garia) eta manufaktura produktuak (burdineria, ezkoa, itzeak...).

Iruñetik Nafarroako eta Aragoiko artilea heldu zen, batzuetan Gaztelakoa ere, erregaliza, oliba olio eta Aragoiko arnoak.

Garraioaren baldintzak

XVIII. mendean, bideak hain ziren txarrak non ibai eta errekek ahal bezainbat baliatzen baitziren. Orduan, Lapurdiko "bide" nagusia Errobi zen. Baiona eta Nafarroaren artean erabiltzen zen gorago aipatu salgaien garraiatzeko, bai eta Baiona, Lapurdi eta Nafarroa Beherearen artean ere. Gisa horretan, Donibane Garazitik iraganez, Iratiko eta Nafarroa Behereko oihanetatik heldu ziren almadiak igortzen zituzten Baionako ontzioletara. Kanbotik Baionara herriko ekoizpenak igortzen zituzten: Luhuso eta Bidarraiko eihera harriak Akize eta Baionako eiheretan erabiltzeko, Mendibeko eta Bankako burdin meategietatik atera eta Baigorriko burdinoletan moldatu burdineria handiak, kanoiak eta jaurtigaiak erregearen armamenduarentzat, Ezpeleta eta Itsasuko kaolina. Baionatik berriz, garia, arrain gazitua, azukrea, kakaoa eta beste.

Garai horretan "portu" anitz bazen Errobin (mapa ikus). Hain segur, ibaiertzen antolaketa soilak ziren, erreka ontzien lehorreratzeko eta deskargatzeko gisan. Leku izenak hor daude oraino: Portuko borda eta Portugaina Arruntzan, Portuberria Milafrangan, Portuia eta Portuita Larresoron.

Baiona eta Iruñearen arteko salgaiarentzat, ibilbide hoberena Ainhoa, Dantxaria eta Baztanetik iragaten zen. Jendea oinez edo zaldiz baizik ez zen ibiltzen ahal eta salgaiak mandoz edo beste zamarien bidez garraiatzen ziren. Baiona eta Iruñea arteko herri guzietan mando eta mandazainak baziren. Artilearen garraiatzen adibidez, zortzi edo bederatzi mila mando ari ziren. Gibelera bidean, Ainhoan, Lapurdiko itzainek laborantzako lanen ondotik salgaiak Errobiko portuetaraino eramaten zituzten. Han, ibai ontzi ttipietan kargatzen zituzten Baionaraino garraiatzeko (Errobiko porturaino).

Errekatik iraganez, ibilbidea kasik hiru legoaz laburtzen zen.



ERROBI ETA NABIGAZIOA

IBAI ONTZIAK

Errobiren uraren barnatasun eskasarengatik, zola laua zuten ontziak erabiltzen ziren. Izariaren arabera, izen desberdinak zituzten. Laburbilduz, bi moldetakoak ziren:

Gabarrak: txalupa handiak ziren, aitzin zorrotzekoak eta gibel zapalekoak. Nabigatzeko parte zailetan ezin ziren erabili. Horregatik, Arruntzako porturaino baizik ez ziren heltzen.

Xalantak: txalupa ttipiak ziren, meharrak eta bi puntetan zorrotzak. Larresoroko eta Kanboko portuetaraino heltzen ahal ziren. Erreketan ibiltzea oztopatzen zuten nasetako ur joairan goiti eta beheiti iragan zitezkeen.

Iturrien arabera, ibai ontzi hauek 10 eta 20 tona arteko zama eraman zezaketen edo bakarrik 1 eta 2 tona artekoa. Alde handia da, baina bigarren estimazioak zuzenagoa iduri du, errekek eskaintzen zituen nabigazio baldintzak ikusirik. Ontziak arraunen bidez eta batez ere hagen bidez aitzinarazten ziren. Salgaien eta jendeen garraiatzeko baliatzen ziren.

Ontzizainak baziren Larresoron, Milafrangan, Uztaritzen eta Kanbon.



Errobiko oztopoak

Ontzizainen lana zaila eta arriskutsua zen, Errobin ez baitzen aise nabigatzen ahal Uztaritze eta Kanboren artean. Alabaina, bidesarien eta ordainlekuen trabarik ez izanik ere, nasak (edo «paserak») oztopo gaitzak ziren. Bi motatakoak ziren: arrantzakoak eta eiheretakoak.

Arrantzako nasak: ureko hesiak ziren. Hesolak zerra hortz itxuran ezarriak ziren eta adarrez estekatuak, arrainen harrapatzeko sare baten gisa. Ibaian gora eta ibaian behera, arrantza debekatua zen eremu erreserbatu batez inguratuak ziren. Haien jabeei etekin ederrak ematen zizkieten baina ondorio txar anitz bazuten: arrain sarraski handiak egiten zituzten, arrantza libreko lekuak mugatzen, uholdeak larriagotzen eta erreka ohea tapatzen. Teorian, nasa hauek ontzien pasaia utzi behar zuten erreka nabigagarrietan. Errealitatea usu besterik zen. Pasatzeko zailak edo ezinezkoak ziren, batez ere uholde garaian (urak hesolak gordetzen zituelarik) edo urak apal zirenean.

Errobin bi baziren: bat Berriotzen eta beste bat Haitzen. Azkenean, XVI. mendearen bukaeran suntsitu zituzten, anitz arrangura izan ondoren.

Eiheretako nasak: erreka aski zabaletan eta uholdeen menpeko zelaietan, eiherak ubideei esker lotzen zitzaizkion errekarari. Presak (edo nasak) ibaian gorako ubidea elikatzen zuen. Nasa arrainaren harrapatzeko ere balia zitekeen. Nasa hauek arrantzako nasen alde txar berak zituzten. Kanbo eta Baionaren artean zortzi baziren. Kanboko, Haltsuko, Larresoroko, Purgoineko, Uztaritzeko, Arkiko eta Haitzeko eiherak elikatzen zituzten.

Erdi Aroan, nasa hauek etengabeko kalapita iturri ziren ontzizainen eta eiherazainen artean. Ontzien pasabideen gutienezko izariak ez ziren errespetatzen. Erregearen administrazioak zerbaixka egin zuen Errobi nabigagarri bihurtzeko, pasabideak zuzen kontra hesten zituzten nasa eta eihera jabeen aurka eginez.

Nasen jabe aberatsek ez zuketen legearen beldur handirik, zeren ontzizainek eta merkatariek auziak eginik ere, arazo berak agertzen baitziren XVIII. mendean oraino. Ontzizainek zuzengabekerien salatzen segitu zuten, anitzetan idatziz. Nabigazioa kontrolatzen zuten funtzionarioek arabiarako aktak idazten zituzten.

Gatazkak iraun zuen, eihera eta arrantza lekuen jabe ahaltsuen interesak eta ontzizainenak elkarren kontrakoak baitziren. Baina iduri du jabeak nagusitu zirela. Alabaina, Errobiko eiherak Baionaren janari beharren asetzeko beharrezkoak ziren eta hiriak, jabeak eta eiherazainak sostengatu zituzkeen ontzizainen kaltetan.

Arazo korapilatsua zen. Ez zen sekula egiazki konpondu, batzuetan liskar armatuak izateraino.



ERROBI ETA NABIGAZIOA

Nabigazioa

Aitzineko lerroak irakurriz, dudarik ez da ontzizainek nekeak bazituztela beren egun guzietako lanetan: hainbat nasa, hainbat ur joaira. Xalantean, ontzizainak haga luzea baizik ez zuen ontziaren aitzinarazteko eta gidatzeko. Baionara buruzko "jaustea" errazagoa zitekeen, urak ontzia eta zama beheiti eramaten baitzuen. Aldiz, Larresorora edo Kanbora buruzko "igatea" hagaren indar bakarrez egin behar zen.

Ontzizainek marea baliatzen bazekiketen baina horren indarra Uztaritze inguruetaraino baizik ez da senti. Parte zailena, erran nahi baitu nasek gehienik trabatua, beren jakitateari eta besoen indarrari esker igan behar zuten. Pasabide bat tapatua zelarik edo urak apal, ontzia deskargatu behar zuten eta oztopoaren gainetik altxatu, gero berriz kargatzeko eta bidearen segitzeko.

Nabigazio istripuak

Ontziak usu hondoratzen ziren eta jendea maiz itotzen zen, salgaiez gain jendea ere eramaten baitzuten. Adibidez:

1731n

Kanoi jaurtigaiez kargatu ontzi bat, Uztaritzeko Jean Hiriartek gidaturik, urperatu zen Larresoroko eiherako pasabidean. Deskargatu behar izan zuten, eta ur bazterrera eraman.

1770ean

Larresoron bi ontzi hondatu ziren irailean.

1781ean

Munizioz kargatu bi txalupa eta Aroztegi ontzizain nagusiaren ontzi bat hondoratu ziren Arkiko pasabidean.



ERROBI ETA NABIGAZIOA

Nabigazioaren bukaera

XIX. mendean lurreko garraiobideak garatu ziren, lehenik burdinbidea eta gero bidea, Errobiren erabilera murriztuz.

Bizkitartean, Robert Poupelek, Kanbori buruzko artikulu batean, Lehen Mundu Gerla ingururaino iraun zuen laketa itsasketa aipatzen du, bai eta ere errekan legarra biltzen zutela eta xalantez Kanboraino eramaten. Azken xalanta 1935 irian hondoratu omen zen.

Baionatik heldu gari xalantak Uztaritzeko Arkiko irindegira heldu ziren oraino 1914 eta 1918ren artean.

1957an, Turismo eta Herri Lan Ministerioak Errobi kendu zuen nabigatzeko edo flotatzeko on diren erreka eta kanalen nomenklaturatik, dekretu bidez. Geroztik, Donibane Garazi eta Kanboren arteko partea ez da gehiago flotatzeko on eta Kanboko zubitik Haitzeko presara doan partea ez da gehiago nabigatzeko on. Dekretu horretan, hirurogei urtez ahulduz joan zen aktibitatearen bukaera ofizializatu zen. Errobiren erreka-merkataritzaren zortzi mendeak orduan bukatu ziren.



ERROBIKO ERREKA HITZARMENA

Historia pixka bat

Erreketan pilatzen ari ziren hondakinez departamenduko kontseilari batzuek adierazi kezken ondorioz, Baionako suprefetak Errobiko Erreka Hitzarmena abiarazi zuen 1991n. Errobiren arroko uren kudeaketa orokorraren lortzea du xede.

HITZARMENAREN HELBURUAK

- ✓ Edateko ur hornikuntza segurtatu
- ✓ Kalitate bakteriologikoa berreskuratu
- ✓ Sare hidrografiko ahal bezain jarraikia plantan ezarri
- ✓ Sarea berritu eta begiratu
- ✓ Uholde eta higadura arriskuak ttipitu, ekosistemak gerizatzuz
- ✓ Arrain baliabidearen kudeaketa hobetu
- ✓ Errobiren inguruko hezeguneen balioa agerian eman
- ✓ Ureko kirol jardueren baldintzak hobetu, haien segurtasuna barne
- ✓ Paisaia eta eraikinek osatzen duten ondarearen balioa agerian eman

Erreka Hitzarmenaren erronka nagusia uraren kalitate bakteriologikoaren berreskuratzea da. Errobiko Erreka Hitzarmenaren Sindikatu Mistoak pentsaketak hasi ditu, erreka gaineko eta beheko aldean arteko elkartasunaren erabiltzeko, uraren kalitatearen berreskuratzeke helburuarekin.



ERROBIKO ERREKA HITZARMENA

Elkartasun politika

Hau da ideia: edateko ura ekoizten duten lurraldeen eta ur hori kontsumitzen duten lurraldeen arteko elkartasun tekniko eta finantzarioaren bideratzea. Elkartasun politika horren helburu nagusia ur kalitatearen berreskuratzea da arroaren gain aldean, hortako beheko aldeko erabiltzaileen elkartasuna lortuz. Elkartasunaren gauzatzeko, egitura hauek diru kutxa hornitzen dute:

- ✓ Errobiko Lantegiko Sindikatu Mistoa,
- ✓ Euskal kosta-Aturri Hiri Elkargoa (Baiona, Angelu, Biarritz, Bidarte, Bokale),
- ✓ Errobiko Erreka Hitzarmenaren Sindikatu Mistoa.

Diru iturri hau Uztaritzeko ponpatze gunea baino gorago diren uren arazteko ekipamenduen hobetzeko obrei zuzendua izango zaie.

Diru laguntzak orain arteko laguntzei (*Agence de l'Eau Adour-Garonne* eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren diru laguntzak) gehituko zaizkie, obra arduradunak arazte sistemen garatzeko eta hobetzeko lanetan ahal bezain laster has daitezen.



